

Hazparneko herriaren izenean, ongi etorri beroena deneri, eskerrak bihurtzen daukitzuet hemen, arratsalde huntan, gutartean, kausitzeagatik. Nahi nuke bereziki eskertu Euskaltzaindiari eta hunen lehendakari jaunari, hemen izateagatik.

Ohore egin daukuzue gure herria hautatuz zuen laneko biltzar hunentzat. Zoriontsu gira Euskaltzaindia omentsua gutarterat etorririk eta hau seinale bultzagarri bat daukagu, gaur Hazparne huntan, herriko hautetsiekin, euskararen alde, hasia dugun lan huni jarraikitzeke.

Hazparneko herri huntan, asko gelditzen da egiteko euskararen alde. Aitortu behar dugu azken 12 urte hauetan, gure ama hizkuntza balioz gabeturik baztertua izan dela. Gogoan haurtua dugu gaur, euskarak bere tokia behar duela herriko kudeakuntzan. Gure hizkuntza irakurtzen eta mintzaten dugun hauek eskubide dugu hunen kausitzea, herriko argibide eta erabaki agerietan. Gure ekintza bidea dugu arlo huntan bermatzea.

Herriko liburutegian euskarari lotua den lanpostu bat sortua dugu, itzulpen lanak egiteko, nola, adibidez, herriko webguneko itzulpenak, hau laster osoki elebiduna izanen beharra baita. Herriko hautetsi bezala begi onez ikusten dugu, Hazparneko lurraldeak ere bere aldetik erabaki duela bide beretik jarraikitzea. Hunek erabaki du euskal teknikalari, lanpostu bete baten sortzea. Segur naiz, laster, elgarrekin, gure hizkuntzari berriz emanen diogula berena dagon lur huntan, nehoiz galdu behar ez zuen lehentasuna.

Aurten herriko etxe huntan egin da ere *Herria* astekariaren biltzar nagusia eta 3000. zenbakia ateratzearen ospatzea. Gertakari hau gaurkoari lotuz, bi arrazoi itxaropengarri daukagu hor geroari buruz bultzagarriak daukagunak, lehen Hazparne huntan izan den Pierre Broussain auzapez euskaltzalearen helburuari jarraikitzeke.

Beraz eskerrak orori gaur hemen azaiteagatik eta guziz, eskerrak Euskaltzaindiari bere lan handiarentzat eta gure hizkuntza bizirik atxikitzeagatik.

Hazparnen, 2009ko ekainaren 26an  
Patxi Arotzarena, Hazparneko auzapezordea